

1. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroak dira gure proiektuaren funtsa, gure jomuga. Horregatik, bezeroak ondo zehaztea ezinbesteko lana da.

Gure enpresak eskeintzen dituen zerbitzuetaz edonork disfrutatu dezakeen arren, pertsona abenturazaleak bilatzen ditugu, kirola, natura eta esperientzia berri eta biziak maite dituztenak, alegia. Euskal Herriko txoko ezkutu eta berezienak ezagutu eta bertako jendearen ohiturak ezagutzeko interesa duten pertsonak.

Turismo aktiboaren kontsumitzaile diren taldeak izango dira gure bezeroak. Edozein herrialdeetatik etorritakoak, gure herrialdeetako mendietan eta bidexketan txirrindulaz murgiltzeko prest daudenak.

Adin, genero, jatorri, erlijio zein maila ekonomiko mugarik gabe, edozein bezero izango da ongi etorria gurean. Hala ere, esperientzia kultural-deportiboak taldean bizitzeko prest dauden pertsonak izan behar dira, kirola egitera ohituta daudenak eta beste pertsonekin harremanetan egoteko gaitasuna dutenak.